



## Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoak ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena.

Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Meteorologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da.

Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



## Baratzea ekainean

Baratzeari pizgarria emango dion barazki aski ezagun bat landatzeko garaian gaude, piperra. Jatorriz amerikarra, mota askotako barietateak dauzkagu: pikiloa, morroa, Gernika, Ezpeleta, Ibarra.... Lur aberatsa behar du, ongi ongarritu behar da, lehortuta eta xehe-xehe dagoen ongarriarekin, errautsa ere gustora hartuko du. Eguzkia eta beroa behar du, etengabe. Gaueko tenperatura 15C-tik jaisten bada, loraldia moztuko zaio. Erruz ureztatu beharko dugu egun amaieran.

Oraintxe da landaketa egiteko momentua, errenkadetan, lurlean zulotxo bat eginez. Gutxi gora behera, ilara batetik bestera eta landaretik landarera 40cm-ko tartetxoak utziko dugu. Ondoren, hazten doan heinean, lurra jorratzea eta beti ere ipurditik ureztatzea oso garrantzitsua da.

Landareak sasoi betean egotea ezinbestekoa da, horretarako asun-salda erabiliko dugu. Baratzean euri ura bildu, metalezkoa ez den ontzi batean. 10 litro euri uretan kilo bat asun jarriko dugu, 12 egun beratzen. Egunero indar handiz mugituko dugu ura. Baina erabiltzerako orduan, asun salda litro bakoitzari 9 litro ur gehituko diogu, eta ondoren landareetan zabaldu, hosto eta sustraian. Honek batetik intsektuak usatzeko balioko digu (zorriaren edo gorrinaren kontra) eta era berean, gaitzak harrapatutako landareak indarberritzeko ere bai.



## Ingurunea

Lehenengo fruituak jasotzen hasiko gara. Beti, ia ustekabean harrapatzen gaituen fruitu eder, goxo, kolore argiko eta mamitsu batek protagonismo berezia dauka, gerezia. gereziandoaren fruitua. Oso zuhaitz dotorea da, luzeska eta sendoa, hosto zabal berdeez jantzia. Euskal Herri osoan zehar zabaldua dago, goi mendietan izan ezik. Izan ere, nahiz eta lur ezberdinetara egokitzeko gai den, nahiago ditu lur sakon eta hezeak. Oso ohikoa da baserri inguruetan ikustea. Izan ere, baratze inguruko heskaia osatzen zuten fruitu arboletako bat izan ohi zen gereziandoa.

Lizarra, zuhaitz sakratua izan da antzinako euskal gizartearentzat. San Juan bezperako egun, lizarren adartxo bat hartu eta etxeko atean jarri behar da, honela etxea tximista, sute eta ekaitzetatik babesten zuten. Aurreko urteko lizar adartxoa gorde eta San Juan suan erre behar da. Edo erramu egun bedeinkatutako sortarekin batera eta beste zenbait lorerekin, su eman eta honen kea etxe guztian barreiatu; bedeinkatu eta babestuta gelditu dadin.





## Baratzearen eta ingurunearen zaintza Jakoba Errekondorekin kolaborazioan:

- Landaketak egin aurretik lurra prestatu.
- Hazitegiko landare-barazkiak baratzean landatu.
- Landareak babesetik atera eguzkitara.
- Loreontzietan ditugun landareak ongarritu.
- Landare usaindunak landatu.
- Udaran loretuko diren erraboilak eta landareak eroin: gladioloa, kana, begonia...
- Landatu gabeko lurak simaurrez estali.
- Belazeetako belarrak moztu eta ontzen edo lehortzen utzi.
- Sutako hautsa, kare hautsa edo hondarra gehitu lurrari, harrotzeko. Aurretik ongarrria bota badiogu utzi pare bat aste gutxienez eta gero zabaldu karea.
- Orbel garaia amaitzeaz da. Bildu konposta egiteko, azpitarako...
- Fruta arbolak zaindu: bakanketak egin eta behar bada baita tratamenduak ere.
- Udako inausketa egin.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO  
BARATZE EKOLOGIKORA**